



HAURREN AURREAN HELDUOK HELDU

Guraso, zaintzaile, lagun, senide eta bestelako hezitzaileen arteko euskarazko praktikak sustatzeko ekimena

Ekimen honen helburua, zuon arteko (hau da, helduon arteko) hizkuntza praktikak aldatzea eta euskara gehiago erabiltzea da.

Haurren aurrean helduok heldu ekimena Euskal Herri osoan zehar gauzatu da, Euskaltzaileen Topaguneak koordinatuta eta Euskal Herri osoan zehar eratu diren batzordeek sustatuta. Herri Ametsa ikastolak ekimenarekin bat egin du, noski.

Zer da egin beharko duzuen?

1. Solaskideek euskara dakiten kasuetan euskaraz egin / Euskaldunak euskaldunari euskaraz.
2. Lehen hitzak euskaraz egin. Ezezagunekin zein euskaraz ulertzen duten ezagunekin.
3. Solaskideak ulertu bai, baina euskaraz hitz egiten ez badigu, euskarari eutsiko diogu, baita elkarrizketa elebidunetan ere.
4. Hitz egiteko zailtasunak badituzu, baina ulertzen baduzu, gonbidatu zure ingurukoak euskaraz jarrai dezaten/aritu daitezen zurekin.

Horrela, **helduen hizkuntza ohiturak aldatzeaz gain, umeentzat eredugarri izango gara.**